



Zumaia Udala

2025EDIR0002

EUSKARA ZERBITZUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA 2025EKO DEIALDIA EUSKARAZKO ERROTULUAK JARTZEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO

1.- XEDEA

Deialdi honen helburua da 2025ean establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzen dituztenei dirulaguntzak emateko modua arautzea.

Laguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira, eta emateko prozedura Zumaia Udalaren Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

2.- ONURADUNAK

Helbide fiskala Zumaian duten establezimenduen jabe diren pertsonak edo entitateak izango dira dirulaguntza hauen onuradun, betiere araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3.- ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Eskaerak deialdiko eskabide ereduaren arabera aurkeztu beharko dira Udalaren Erregistro Orokorrean edo telematikoki www.zumaia.eus egoitza elektronikoaren erregistroaren bidez.

Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2025eko azaroaren 28an amaitu.

Eskabideak aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak berariaz eta oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskabideak deialdi honen eranskineko eredu normalizatuaren bidez egingo dira. Horrekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Errotuluaren edo toldoaren faktura eta dagokion ordainagiria.
- b) Jarritako errotuluaren argazkia.
- c) Hirugarrenen alta emateko agiria (edo bankuko kontuaren titulartasun ziurtagiria)

Zumaia Udalak, NISA Eren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez



Zumaia Udalak

2025EDIR0002

bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administrazio emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarri, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Zumaia Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, NISAren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- NAN edo agiri baliokidea.
- IFK agiri (erakundea bada)
- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

Zumaia Udalak ofizioz egiaztatuko du harekiko betebeharrak betetzen direla.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

5.- AURREKONTUKO DIRU HORNIDURA

Aipatutako dirulaguntzarako 2.000,00 € daude 1 0200.481.335.10.01 2025 (105) kontu sailean. Beharrezkoa bada, kontu sail berean euskalduntzerako izendatutako dirua erabili ahal izango da, betiere aurrez agortu ez bada.

6.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira dagozkien euskarriak (kanpoko erroteruak, toldoak, erakusleihoetako itsasgarriak...) lortzeko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira.

Ez dira diruz lagunduko erroteru elebidunak, nahitaezkoa izango da euskaraz bakarrik egotea.

Ez da laguntzarik emango izen berezia bakarrik agertzen denean; establezimenduaren jardura euskaraz adieraztea hartuko da irizpidetzat.

7.- ESKAERAK BALIOZTATU ETA LAGUNTZAK EMATEKO BALDINTZAK

Eskaerak emateko irizpidea izango da ziurtatzea eskatzaileak baldintza guztiak betetzen dituela. Lan hori Euskara Zerbitzuko teknikariek egingo dute.

- Establezimenduak helbide fiskala Zumaian duela.
- Eskatzaileak betebeharrak eguneratuak dituela.
- Udalaren baimena baduela (toldo eta antzekoak jartzeko)
- Errotulua euskaraz eta zuzen idatzi dela.

Azken puntuari dagokionez, establezimenduei gomendatzen zaie aurrez dagokion kontsulta egitea Euskara Zerbitzuan.

8.- EBAZPENA

Euskara zerbitzuburua izango da instrukzioaren arduraduna eta, aurrez Euskara Batzordean txosten teknikoak aurkeztu eta gero, alkate dekretuz ebatziko da.

Guztia gehienez 6 hilabeteko epean egin beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Aipatutako epea igaro eta gero, Udalak eskabideren bati buruzko erabaki zehatzik hartu gabe izango balu, erantzuna ezezkoa dela esan nahiko du horrek.

9.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Errotulazio elementuaren kostuaren % 50 lagunduko da diruz, 300 euroko muga gainditu gabe.

Establezimendurako laguntza jaso eta bi urteko epean ezingo da beste laguntzarik eskatu xede bererako.

Udalak dirulaguntzetan ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.



10.- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Banku transferentzia bidez egingo da dirulaguntzen ordainketa, onuradunaren titulartasuneko kontu batean.

Dirulaguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren % 100 ordainduko da.

11. ARAUBIDEA ETA ERREKURTSOAK

Euskarazko errotuluak jartzeagatik dirulaguntzak emateko oinarri berezietan (2022ko abuztuaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 163. zk.) xedatutakoari jarraituko zaio laguntza hauek emateko.

Oinarri horietan aurreikusi gabeko alderdi guztietan betetzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzko lege orokorra (azaroaren 18an argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean); lege horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25ean argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean); Zumaiako Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzaile Orokorra (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.); eta 2024-2027 epealdiko Zumaiako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 zk.).

Interesdunek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsa aurkezteko deialdi hau onartu duen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsa aurkez daiteke.

ERANSKINA:
EUSKARAZKO ERROTULUAK JARTZEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

Eskatzailearen izena		NAN-AIZ	
HELBIDEA		Herria	PK
Sexua	Telefonoa	Helbide elektronikoa	
Emak. ☐ Giz. ☐ Ez-binarioa ☐			

Jarduerari buruzko datuak		NAN-AIZ-IFK
Izen komertziala	Jarritako testua	

Jakinarazpenak bidaltzeko datuak (helbidea goikoa ez bada):

Helbidea		Herria	PK
Telefonoa		Helbide elektronikoa	

NOLA JASO NAHI DITUZU ESKABIDE HONEN ERANTZUNAK (Telematikoki jaso nahi badituzu ziurtagiri digital bat beharko duzu(B@kq, FNMT...) eta telefono mugikor eta helbide elektronikoko eremuak bete behar dituzu.	Telematikoki ☐	Posta arruntez ☐
ESKAERA HONEN ERANTZUNA ELE BIETAN JASO NAHI DUT (Ezer adierazten ez bada, euskara hutsean egingo da)	☐	

Banketxea (dirulaguntza sartzeko):

Banketxea	Kontu zenbakia. (IBAN barne)																								
	E	S																							

☐ Adierazten dut ez dudala debekurik dirulaguntza publikoak jasotzeko.



Zumaia Udala

2025EDIR0002

BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK

Eskatzaileari informatzen zaio, Zumaia Udalak bere dirulaguntza ordenantzan (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 151. zenbakia, 2020ko abuztuaren 11koa) eta euskarazko errotuluak jartzeagatik dirulaguntzak emateko oinarri berezietan (2022ko abuztuaren 26ko GAO, 163. zk.) ezarritako baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- NAN edo IFK agiriaren kontsulta
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Zerga betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

☐ Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dut

Dirulaguntza eskatu ahal izateko, agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari:

- Euskaraz jarritako errotuluaren edo toldoaren faktura eta ordaindu izanaren agiria
- Jarritako errotuluaren argazkia
- Hirugarrenen alta emateko agiria (hurrengo orrialdean), banketxean sinatuta eta zigiluz jota, edota titulartasun ziurtagiria.

Zumaia, 20__ ko _____ (a)ren _____
(Eguna)

Sinadura
(izen-abizenak eta NAN-AIZ adierazita)



Zumaia Udala

2025EDIR0002

Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Tratamenduaren Arduraduna	Zumaia Udala Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa) Datuak Babesteko Ordezkarria: dbo@zumaia.eus
Helburua	Udalaren eta haren mendeko erakundeen aurrekontu-, ekonomia- eta kontabilitate-jardunaren ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea.
Zilegitasuna	DBEDBLO 8.1 eta 8.2. artikulua: legezko betebeharragatik, interes publikoagatik edo botere publikoak baliatzeagatik buruturiko datuen tratamendua.
Komunikazioen hartzaileak	Zumaia Udala Zerga Administrazioari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta dagozkion administrazio publikoei jakinarazi ahal izango dizkie zure datuak, tratamendu honen esparruan aplikagarria delako legez hala ezartzen bada.
Eskubideak	Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, transferitzeko eta mugatzeko eskubideak erabiltzeko eskubidea duzu, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko ere.
Informazio gehigarria	Datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuak babesteari buruzko atalean: https://zumaia.eus/eu/udala/datuen_babesa



Zumaiaiko Udala

2025EDIR0002

HIRUGARREN INTERESDUNARI ALTA EMATEA (agiri honen baliokidea da bankuaren titulartasun ziurtagiria)

HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

NAN/AIZ/IFZ

Izena eta bi abizenak

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Lurraldea

BANKUAREN DATUAK

BANKUA (IBAN kode eta guzti)

BULEGOA

KOD

KONTU ZENBAKIA

JABEA

Oharra: Kontuaren jabeak hirugarrena bera izan behar du.

Bankuaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

Hirugarren interesdunaren adostasuna

Sinadura

Udalaren onespena

Sinadura eta zigilua

Zumaian, 20__ ko _____(a)ren _____

(Eguna)